

JUAN DE LA CIERVA 2020 **DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA:** ***"Incorporación" modalitatea***

Dirulaguntzen ezaugarriak:

MCI-k 278 laguntzatarako deialdia egin du doktore gazteen lan kontratazioa suspertzeko, doktoregoaren ondoko lehenengo prestakuntza fasean berenganatutako gaitasunak finkatze aldera. Bost plaza gordetzen dira %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatze eta beste 5 autonomia-erkidegoetako nekazaritza eta elikagaigintzako ikerketa-zentro publikoetan eta Nekazaritza eta Elikagaigintzako Ikerketa eta Teknologiako Institutu Nazionalen ikertzaileak kontratatze.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuek **hiru urteko** iraupena izango dute, gehienez. UPV/EHUn hasiko diren onuradunek **26.300 euro gordin jasoko dituzte urtean.**

Horrez gainera, 6.300 euroko laguntza gehigarria emango da, kontratatutako pertsonak ikerketa jarduerekin zuzenean loturik dituen gastuak ordaintzeko.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Baldintzak deialdiko oinarrien 65. artikuluan kontsulta daitezke.

UPV/EHUko tutoreek bete beharreko baldintzak:

Tutoreek bermatuta eduki beharko dute funtzionario lotura edo lan kontratua UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denetik laguntzak dirauen 3 urteak amaitu arte.

Tutoreak, modalitate honetan, eskaera bakarrean ager daitezke tutore gisa. Baldintza hori bete ezean, bi eskaeretatik kanpo geldituko dira.

GARRANTZITSUA:

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du balioztatuko baldintza hori betetzen ez duen eskaerarik.

Eskaerak aurkezteko epea hautagaientzat:

2020ko abenduaren 15etik 2021eko urtarrilaren 19ko 14:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Hautagaiak berek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du aurkeztutako eskaerak balidatzeko, **2021eko urtarrilaren 26ra arte**, hain zuzen ere.

Hautagaiek aurkeztu beharreko eskaera:

Eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean: <https://sede.micinn.gob.es/rus/>
2. Eskaera egiteko formularioa [aplikazio](#) honetan bete behar da.

Komeni da [ohiko galderen zerrenda](#) kontsultatzea MCIUren webgunean.

UPV/EHUko izapidea:

UPV/EHU n adskribatu gura duten hautagaiek dokumentazio hau igorri beharko dute **2021eko urtarrilaren 19ra arte (hori ere barne)** pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. [Hautagaiaren CVNa](#)
- c. NANaren kopia
- d. Doktore tituluaren kopia
- e. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura daitekeen erudian.
- f. [Tutorearen CVA](#)
- g. Ikertaldearen historial zientifiko eta tekniko (5 urtekoa).

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du balidatuko epez kanpo igorritako dokumenturik duen eskaerarik.

GARRANTZITSUA:

Bestalde, eskaera egiteko formularioa, jatorrizko sinadurarekin bidali beharko dute **PAPEREAN** posta ziurtatuaren bidez edo barruko postaz helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa z/g
48.940 Leioa (Bizkaia)

MCIUko kontaktua:

Eskatzaileek MCIUri egin ahalko dizkiote kontsulta administratiboak zein informatikoak formulario honen bidez:

https://www.ciencia.gob.es/portal/site/MICINN/consulta_ayudas

UPV/EHUko kontaktua:

Zerbitzuaren hobe beharrez, kontsultak posta elektronikoaren bidez bidaliko dira

pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, gaiaren eremuan "Juan de la Cierva-Incorporación" adierazita.

Informazio gehiago:

Esteka-> Sakatu [Hemen](#)